

“JOSE URUÑUELA” UDAL DANTZA KONTSERBATORIOA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA - Izaera eta zereginak.

1. artikulua.- Izaera juridikoa, atxikipena eta helburuak.

1.- Dantzaren alorreko irakaskuntza eta prestakuntzarako erakunde publikoa da “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa, toki erakunde autonomo izaera duena, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85. bis artikuluan –abenduarien 16ko 57/2003 legeak emandako idazkuntza– aurreikusitakoaren ildotik.

2.- Ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa eskaini eta gerora dantzaren alorreko profesional –dantzari, maisu, koreografo edo beste– izango direnen trebakuntza bermatzea du helburu “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioak, bereziki dantzaren alderdi eta modalitate guztiak sustatzen lagunduz, guztia ere Gasteizko udalerraren lurralde esparruan, edo baita beste esparru batzuetan ere, egoitza udalerrian nahiz udalerritik kanpo duten erakunde, entitate, gizabanako edo pertsona juridikoekin adostutako hitzarmen edo jardueren ondorio diren lankidetzak-harremanen bitartez.

3.- Gasteizko Udaleko Kultura zinegotziari atxikia geratuko da “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa. Hain zuzen ere, hari dagozkio erakundearen jardueraren emaitzen ebaluazioa eta kontrola, eta, zehazki, langileriaren eta giza baliabideen kudeaketak sortutako gastuen bilakaerarena, baita erakunde autonomoaren eraginkortasunaren kontrola ere, Gasteizko Udalaren sektore publiko lokalaren baitako erakunde publikoen emaitzen ebaluazioaren eta kontrolaren alorrean Gasteizko Udaleko kontu-hartzaile nagusiari dagozkion eskumenak gorabehera.

4.- Nortasun juridiko berezia du “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioak, ondare eta diruzaintza propioak, baita kudeatzeko autonomia eta erabateko gaitasun juridikoa nahiz jardutekoa ere, eta bere helburuak betetzeko beharrezko dituen administratzeko ahalmenak dagozkio bere eskumenen esparruan, estatutu hauetan finkatutako moduan, desjabetzeko ahalmena izan ezik.

2. artikulua.- Erregimen juridikoa.

Honako lege-arau hauek zuzenduko dute “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko xedapenek, Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak, Estatuko Administrazio Orokorren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 45. artikulutik 52.era bitartekoetan xedatutakoak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bateratua onetsi zeneko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legetik aplikagarri zaizkion xedapenek, estatutu hauek eta, oro har, xedapen horiek garatzen dituzten arauak eta aplikagarri zaizkion gainerakoak.

3. artikulua.- Antolakuntza eta funtzionamenduari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoaren 1/1993 Legeak izaera orokorrez finkatutako kudeaketa eta parte-hartze organoak izango ditu kontserbatorioak.

4. artikulua.- Zereginak.



1.- Hauek izango dira "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioaren zereginak:

- a) Pertsonak dantzaren ezagutzan heztea, horren modalitate guztietan.
- b) Gazteak artearen adar horretako profesional bihurtzeko prestatzea, irakaskuntza arautu eta mailakatuaren bitartez.
- c) Dantza Tradizional espezialitatea garatzea, kultura unibertsalari egindako ekarpen gisa.
- d) Lortutako maila ofizial onetsiari dagokion Dantza titulua ematea, izaera ofizialez, ikasketa akademikoak bukatzean.

2.- Aurreko atalean adierazitako zeregin horiek betetze aldera, jarduera hauek bideratu ahal izango ditu "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioak:

- a) Dantzaren irakaskuntza arautua antolatu eta eskaini, Hezkuntza Sistema Antolatzeko Lege Orokorraren (LOGSE) ildotik.
- b) Gazteei beste dantza modalitate batzuetako ezagutzak eskaini, LOGSE legeak eskatzen dituen gain.
- c) Dantzaren munduarekin ikustekorik duten jarduerak antolatu, hala nola jaialdiak, ikastaroak, mintegiak eta abar.
- d) Dantzaren alorreko beste zentro eta erakunde batzuekin harremanetan jarri.
- e) Dantza talde profesional eta erdi-profesionalekin emanaldiak hitzartu, beren lana erakuts diezaieten ikastegiko ikasleei.
- f) Luze gabe, kontserbatorioaren dantza lantegia eratu, beren bitzta profesionala -dantzaren munduan- nolakoa izango den aurrez jakiteko aukera eman diezaien ikasleei eta, aldi berean, ikastegia ezagutzera emateko baliagarri izan dadin.
- g) Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza.
- h) Erakundearen helburuak eta zereginak betetzen laguntzen duen beste edozein.

II. KAPITULUA - Gobernu organoak.

5. artikulua.- Gobernu organoak.

1.- Honako hauek dira "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioko gobernu organoak:

1.- Organo kolegiatua:

- A) Zuzendaritza Kontseilua.

2.- Pertsona bakarreko organoak:

- a) Lehendakaria.
- b) Lehendakariordea.
- c) Zuzendaria.

2.- Estatutu hauetan xedatutakoak eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean jasotakoak arautuko dute Zuzendaritza Kontseilua.

6. artikulua.- Zuzendaritza Kontseilua.

1.- Kide hauek izango ditu Zuzendaritza Kontseiluak:

- a) Lehendakaria, zein Gasteizko Udaleko alkatea izango baita.

- b) Udal talde politiko bakoitza ordezkaturako duen kontseilu-kide bana – udalbatzak izendaturako ditu, zinegotzien artean.
- c) Idazkaria, zein Udal Aholkularitza Juridikoko legegaria bat izango baita.

7. artikulua.- Zuzendaritza Kontseiluaren zereginak.

1.- Hauek izango dira Zuzendaritza Kontseiluaren zereginak:

- A) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontseiluaren jardura-ildoak finkatzea.
- B) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontseiluaren aurrekontuen aurre-proiektua onestea.
- C) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontseiluaren urteko oroit-idazkia onestea.
- D) Ondasun eta eskubideen inbentarioa onestea.
- E) 12.000 eurotik gorako edozein eratako kontratuak egitea.

2.- "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontseiluari Zuzendaritza Kontseiluak bere zereginak betetzeko bideratzen dituen egintzek eta ematen dituen ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari.

Zuzendaritza Kontseiluaren egintzen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten den aukerako berraztertze errekurtsoa gorabehera.

8. artikulua.- Funtzionamendua.

1.- Erakundeak behar bezala funtzionatzeko beharrezko den adina bider bilduko da Zuzendaritza Kontseilua, lehendakariak deialdia egiten duen artean; gutxienez hilean behin.

2.- Idazkariak bideratuko du kontseiluaren bilkurarako deialdia, gutxienez 48 ordu lehenago, aztertze beharrezko gaien zerrenda bertan ageri delarik. Hain zuzen ere, idatziz eta zuzenean helaraziko zaie deialdia, banan-banan, interesatu guztiei.

3.- Lehendakaria eta idazkaria –edo horien ordezkariak– bilkurara agertzen direlarik eratu da balio osoz kontseilua, baldin eta gutxienez ere kideen erdia bertan bada. Boto gehienoz hartuko dira erabakiak; hala ere, kideen botoak haztatuak izango dira, bakoitzaren talde politikoak udalbatzan duen ordezkarien mailarekiko erlazio zuzenean.

4.- Bilkura guztien akta jasoko da; dena delako bilkuran bertan nahiz hurrengoan onetsi ahal izango da, eta orduan aurrera izango du indar betearazlea. Idazkariak sinatu behar du, eta lehendakariak onartu eman. Gisa berean egingo dira kontseiluaren erabakiei buruzko ziurtagiriak.

5.- Zuzendaritza Kontseiluaren bilkuretara joango da; ahotsa izango du, baina ez botorik. Erakundeko edozein teknikari ere joan ahal izango da, lehendakariak deituz gero.

6.- Zuzendaritza Kontseiluaren eratzeko eta funtzionamendu erregimena toki jaurbidearen antolakuntza eta funtzionamendu arauetara egokituko da estatutu hauetan aurreikusitako gabezoetan.

9. artikulua.- Lehendakaria.

1.- Gasteizko Udaleko alkateari dagokio "José Uruñuela" Udal Dantza Kontseiluari lehendakari izatea. Zuzendaritza Kontseiluko edozein kideren esku utzi ahal izango ditu alkateak, guztiz edo partez, lehendakari den aldetik dagozkion eskumenak.

2.- Hauek dira lehendakariaren zereginak: "José Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioa – erakunde gisa– ordezkatzea, bertako Zuzendaritza Kontseiluko lehendakari izatea eta, oro har, berariaz Zuzendaritza Kontseiluari leporatu gabekoak oro, indarrean dagoen toki jaurbidearen alorreko legediaren arabera udalbatzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari eta ez besteri dagozkienak salbu.

10. artikulua.- Lehendakariaren egintzak eta ebazpenak.

"Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioko lehendakariak bere zereginak betetzeko bideratzen dituen egintzek eta ematen dituen ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari.

Lehendakariaren egintzen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusten den aukerako berraztertze errekurtsoa gorabehera.

11. artikulua.- Lehendakariordea.

1.- Zuzendaritza Kontseiluko kideen artean lehendakariorde bat izendatuko du alkateak.

2.- Hauxe da lehendakariordearen zeregina: lehendakaria ordezkatzeko, bertan ez bada, kargua hutsik geratzen bada edo gaixorik badago.

12. artikulua.- Zuzendaria.

1.- Administrazio publikoetako karrerako edo lan-kontratupeko funtzionario bat edo sektore pribatuko profesional bat izango da "José Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioko zuzendaria; goi-mailako tituluduna izan beharko du, eta bigarren kasuan, gainera, 5 urteko gora lanbidean aritua. Gasteizko Udalean zuzendaritza organotzat joko da zuzendaria.

Lehendakariak izendatuko du zuzendaria, Zuzendaritza Kontseiluak proposaturik

Zuzendaria, zeinek hitza izango baitu, baina ez botorik Kontseiluaren bilkuretan, gaitzetsi egin ahal izango du Zuzendaritza Kontseiluak, bertako kideen arteko gehiengo absolutuz hartutako erabakia dela medio.

2.- Hauek dira zuzendariaren zereginak:

- A) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioaren jarduerak zuzentzea, Zuzendaritza Kontseiluak eta bertako lehendakariak finkatutako ildoei jarraiki.
- B) Aurrekontuen aurre-proiektua egitea, Zuzendaritza Kontseiluari aurkezteko.
- C) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioko langileen eta zerbitzuen zuzendari izatea.
- D) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioak bideratzen dituen proiektuak hobeto kontrolatzeko ebaluazio-tresnak finkatzea.
- E) Lehendakariak edo Zuzendaritza Kontseiluak berariaz agintzen dizkioten edo beraren gain uzten dituzten zereginak oro betetzea.

III. KAPITULUA - Erregimen ekonomikoa eta langileena

13. artikulua.- Ekonomi eta finantza erregimena.

Toki ogasunen alorreko legedian eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen X. tituluko III. kapituluaren erakunde autonomoei dagokienez finkatutakoa izango da aurrekontu, ekonomi eta finantza, kontabilitate, kontu-hartze eta finantza-kontrolaren erregimena.

14. artikulua.- Ondarea.

Bere ondareaz gain, honako ondasun hauek izango ditu "José Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioak bere helburuak betetzeko: Gasteizko Udalak esleitzen dizkionak, bere kudeatze zereginen baitan erosten dituen ondasun eta eskubideak nahiz edozein pertsona publiko edo pribatuk, edozein titulu dela medio, beraren esku uzten dituenak. Erakundearen ondasun eta eskubideen inbentarioan sartuko dira horiek guztiak, eta toki korporazioen ondarea arautzen duen legedian eta Administrazio Publikoen Ondarearen Legearen xedatutakoaren arabera kudeatuko, aplikagarri zaizkion neurrian. Urtero, ondasun eta eskubideen inbentarioa igorriko zaio Kultura zinegotziari.

15. artikulua.- Baliabide ekonomikoak.

Iturri hauetatik etorri ahal izango dira baliabide ekonomikoak:

- A) Beraren ondare diren ondasun eta balioetatik.
- B) Ondare horren ekoizpen eta errentetatik.
- C) Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorretan egokitzen zaizkion berariazko diru-izendapenetatik.
- D) Administrazio edo entitate publikoetatik jasotzen dituen ohiko transferentzia nahiz kapital transferentzietatik, baita edozein pertsona publiko nahiz pribatu, espainiar nahiz atzerriarrek egindako ekarpenetatik eta dohain emandakoetatik ere.
- E) Jasotzeko baimendua dagoen ohiko nahiz aparteko diru-sarreretatik, horiek arautzen dituzten xedapenen ildotik, zerbitzuak eskaintzearen ondorio direnak barne.
- F) Beraren esku uzten den beste edozein baliabidetatik.

16. artikulua.- Kontratazio erregimena.

Administrazio publikoen kontratazio arau orokorrek arautzen dituzte "José Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioren kontratazioak, eta, bereziki, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen testu bateratuak eta xedapen horiek garatzen dituzten arauak.

Kultura zinegotziak finkatuko du, aldez aurretik, zein kopurutara arte kontratatu ahal izango duen "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioak, beraren baimena izateko beharrik gabe.

17. artikulua.- Langileen erregimena.

1.- Honako hauek osatzen dute erakundeko langileria:

- a) Destinoa "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioan duten langile funtzionarioek.
- b) "Jose Uruñuela" Udal Dantza Kontserbatorioak kontratatutako lan-kontratupeko langileek.

2.- Prestakuntza aldiaren dauden langileek eta bekadunek, hau da, doktoratu aurreko, doktoratu osteko edo ikerketa-hastapeneko nahiz bestelako beka direla medio beren presta-



Onespena: 2005/11/30

ALHAO, 40 zk. de 2006/4/5

kuntza hobetzeko jarduerak egiten dituztenek, ez dute lotura juridiko-laboralik izango erakundearekin.

18. artikulua.- “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa deuseztatzea.

Gasteizko Udaleko udalbatzak erabakiko du “Jose Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa deuseztatzea, dela ofizioz, dela Zuzendaritza Kontseiluak hala proposaturik. Hala eginez gero, Gasteizko Udalaren esku geratuko dira haren ondasun eta eskubideak oro.